

**SOR**

**KUN**

**TZA**

**BEKAK 2024**



# SORKUNTZA BEKAK 2024

MEMORIA



## **SORKUNTZA BEKAK**

1- Intza Arakistain

2- Igor Rezola

3- Ane Zapirain

4- Viviane Straub

## **SORKUNTZA EGONALDIAK**

5- Izaro Iregi

6- Jon Amorrortu

## Intza Arakistain

Azkoitia, 1997




### El rayo verde en una tienda de alfombras

“El rayo verde en una tienda de alfombras” da denbora luzez landu dudan proiektuaren izenburua. Desiraren inguruan mugitzen da nire lana, desira hori zerrek aktibatzen duen igartzen saiatzen naiz, eta pista desberdinak jasotzen noan bitartean, baitan ditudan intuizio horiek kanpora ateratzeko ekintza aktibatzen dut nire praktika artistikoaren bitartez, betiere, zerbait berria aurkitu, eta nahi hori gorpuzteko edo ezagutzeko asmoarekin.

Pinturan, material desberdinak frogatu eta beraien nahasketen edo erabileraren bitartez lortu ahal diren aukera ugariekin jolasten saiatzen naiz. Ez dut ideia zehatz bat behar lanean hasteko edo aritzeko, material edo kolore batekiko interesak balio dit adibidez lana aktibatzeko. Pintura pultsionala lantzen dut askotan. Pintura, pultsionala, azkarra, pintura espasmoa... bizkortasun eta energia horrek duen indarra, moteltasun eta zerbait pentsatuago eta lasaiago, batekin nahasten saiatzen naiz, bi gauzen artean oreka bat lortzeko asmoarekin.



**Igor Rezola**  
Itsasondo, 1974




## **ITXIERAK eta IREKIERAK**

Proiektu artistiko honek, heriotza, sormen-motor bihurtzen den espazio intimo eta unibertsal batean murgiltzera gonbidatzen gaitu. Esperientzia pertsonal batetik jaioa, obra-sorta hau omenaldi bat izateaz gain, heriotza, hutsunea eta dolua esanahiz betetzeko saiakera moduan ulertzen da.

Serie hau osatzen duten piezek, gizakiaren existentziaren hauskortasuna eta bizitzaren iragankortasunaren ezinbestekotasuna lantzen dituzte. Hala ere, galerak uzten duen hutsunean geratu gabe, memoria orainean ainguratzen duten testigantza material gisa aurkezten dira. Pieza hauek ez dute soilik falta den pertsona edo pertsonak gogora ekartzen, baizik eta komunitateek dolua nola prozesatzen duten eta ahanzturari nola aurre egiten dioten hausnartzera gonbidatzen gaituzte.

Memoria ez dela soilik erresistentziaren forma bat gogorarazi nahi digute, baizik eta gizatiar denaren baieztapen bat ere, galeraren aurrean bizitzaren jarraitutasunaren testigantza, iragana eta oraina lotzeko modu bat. Hemen, memoriak, maite dugun hori denboraren etengabeko fluxuan bizirik mantentzen dela adierazten du, eta zentzu horretan, gogoratzea ekintza pasibo bat izatetik haratago, sormenaren forma aktibo bihurtzen da.





# Ane Zapirain

Bilbo, 1997




## PASABIDE BAT

Pasabide bat gorputzek espazio fisikoetan diharduten bizikidetzaren ikerketa bat da eta nola gorputza bera kondidiodz eraikitzen joaten den gizartean esleituta dauden mugimendu patrioietara dohitzeko.

Ideia giza mugimenduaren eredu edo patriiak (sozialak) ulertzeko interesetik sortzen da. Nola pertsona bakoitza zutik egoteko, ibiltzeko edota jesartzeko estrategiak ehunduz doan, bere egoera fisiko eta emozionalarekin kargatuz. Munduan egoteko modu bakarra eta pertsonala eraikitzen doa pertsona bakoitzarengan, jasandako egoera eta ohituren poderioz, horrek egunerokotasuneko koreografietan (eguneroko akzioetan) pertsona bakoitzaren interpretazioaren azterna agerian uzten du. Eta modu honetan irakur dezakegu giza izatearen aspekturik naturalena: gorputza.

Era berean, mugitzeko kode sozialak nola apurto ikertzeko meta du proiektu honek. Historio ezberdinak gordetzen dituzten espazio, eraikin edo objektuetara gorputz bat nola moldatu daitekeen hausnartzera eramango gaituen lana izatea imajinatzen dugu. Non gorputzak patrio sozialekin kunplitzeaz haratago, elementu edo objektuekin harreman fisikoa ezartzen duen, ingurunea eta gorputza bera, paisaia edo ekosistemaren parte bihurtuz.

Mugimendu-jarraibideen eta gorputzak gidatzen dituen presentziaren bidez espazioa erabiltzeko kodeekin hausten duen gorputz baten kontakizuna da.



# Viviane Straub

Ravensburg, 1989




## TEXTILE

Textilek proposatzen du bigarren begirada luze bat eskaintzea normalean instintiboki begietatik aldentzen dugun material bati, tokiko ibaietan bildutako ehun-hondakinei.

Oihalaren funtzionamendutik abiatuz, hari solteak eusteko, estaltzeko eta beroa emateko gai den sare batean ahokatzuz erregularizatzen dituen egitura gisa, gelditu egin nahi zuen baztertuak izan zirenean hondakinek jasan zuten arbuio-katea, eta poliki-poliki usteltzen jarraitu, ibaiaren fluxutik kendu zituzten ibaiertzeko landareen adarren artean.

Enpatiaz eta beren sentikortasunarekiko arreta zorrotzez tratatzen ditu; berriz integratzen ditu eta beren jantzirik onenak jartzen dizkie zauririk estali gabe; baina gaitzespen hura gainditu eta milimetro batzuetara geratzen da: galdera azaleratzeko nahikoa da abjekziotik berrintegratzen ari denari buruz, birintegratzen ari denari buruz, eta bien arteko muga gisa funtzionatzen duen ertzari buruz.





# SORKUNTZA EGONALDIAK

# Izaro Ieregi


Algorta, 1987

## La íra neumática


Emakumeen amorrúa genero-aberrazio gisa aztertzeo ikerketa koreografikorako proposamen bat da. Amorrúaren inguruan hausnartzen du gorputzaren grabitatearen noziotik abiatuta. Izan ere, grabitateari buruz poetikoki pentsatzeak aukera ematen dit subjektu erlazonalago baterako proposamenak pentsatu eta sortzeko. Subjektu tente eta bertikal baten nozio maskulinoa desmuntatzeko leku gisa erabiltzen dut, izan ere, grabitatea tresna politikoa ere bada. Paul B. Preciadok bere azken lanean kapitulu oso bat eskaintzen dio grabitatearen erabilera politikoari. Hau da, koreografia sozialetik kanpo gertatzen keinu edo mugimendu debekatuei; adibidez, Rosa Parksen gorputzaren grabitatea zurientzako autobuseko eserleku batetik jaikitzeari uko egin zionean. Hau grabitatearen erabileraren bitartez amorrú erakustaldi bat dela esan dezakegu. Amorrúa emozio geldiarazlea izan daiteke, baina baita aktibatzailea ere. Emakumeen amorrúa fetitxizatua izan da eta, beraz, ukatu egin digute. Valerie Solanasek Andy Warholi egindako tiroan pentsatzen dut. Zer gertatzen da katua sakatzen duena gizon tente bat ez denean? Emakumeen indarkeria eta amorrúa genero-aberrazioak dira. Amorrúa aldakan kokatzen da. Masailezurra bigarren aldaka da. Gorputzaren bi atal hauek lanaren ardatz direlarik, iraupen luzeko performanze bat da. Gorputza, ahotsa eta soinua erabiliko duen koreografia bat.

Kasu honetan, erakustera noan hau, proiektu zabal honen zati bat da. Ikus entzunezko pieza bat zehazki.









# Jon Amorrortu

Bilbo, 1990

## Marra

Euskal Herriko Unibertsitatean trebatutako margolaria. Lan bat eraikitzen du, non azentu formala tentsioen konplexutasunean, akaberen konbinazioan eta pinturak materia gisa duen ukipen- nolakotasunean jarrita dagoen. Bere irudiak gai askotakoak izan daitezke, nahiz eta identitatearen ezaugarriak nabarmenena gaur egungo indibidualari eta inguratzen duen naturari buruzko ikerketa den, paradisu berri gisa.

Hala eta guztiz ere, naturak bere bidea egiten du, bizitzaren alde positiboaren ideia erromantiko horretan datza gaur egun artistaren lana.

Naturak bizitzan aurrera egiten duen bezala, Azpeitiko egoitza bultzatu zuten arazo formalak euskarri ezoihokoen gaineko sorkuntzaren inguruko ikerketa eta marraren inguruko bilaketa izan ziren. Artistaren lan mailakatua dela eta, paper, koaderno edo euskarri "txiroetan" hasten dira bere sorkuntzak, bilaketa horiek beste euskarri batzuen gainean egiten dira.

Ikerketaren ondorioz, hainbat lan egin dira euskarri desberdinetan. Artistak erakusketa honetan aurkezten dituen lanak lerro bidezko marrazki batzuk eta koloretako bikote bat dira, aurkezten den lanaren berezitasuna da denbora-desfasea gertatzen dela lerroko marrazkiaren eta koloretako marrazkiaren artean. Lerroa erreferentziari jarraituz egiten da, pinturak egitera motibatzen duten arazo formalak kontuan hartuz. Pintura izateko pentsatutako marrazkiak dira. Pentsamendu horretan,

marrako marrazkiak alderatu egiten dira, eta hilabete batzuetan ikutu barik uzten dira. Handik gutxira, kolorekoak egiten dira.

Lan honen ondoan, 12 hileko serie bat aurkezten da, gouache paper gaineko lan batzuk dira, bodegoiaren ideia inguruko ibilbide bat, konstante bat bezala errepikatzen dena, presentziari eta denboraren joanari buruz hitz egiten duen lan bat. Lan honetan, konposizio-eta marrazketa- prozesuan hain presente ez dagoen baina funtsezkoa den lerroa olio zurizko estaldura fin batek garbitzen du.







**-Azpeitia**  
Denontzat

**Kulturaz**  
Azpeitiko Kultur Kooperatiba

